

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

SAN MARTZIAL 22



Egile eta data ezezagunak

(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboaren espedientean. Espedienteari 1885ean eman zitzaion hasiera)

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina, lau goi oin eta bi oin estalkipe txapituladunean (azken hiruak segur aski geroagokoak dira. Harlanduzko fatxada (behe oina eta baoetan azpadurak), estaldura zeramikoa du. Konposizio bateratua Getaria 5ekin (artxiboan ez dago bi eraikin horien daturik).

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: estalkipeko oinak (5. eta 6. goi oinak).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; estaldura zeramikoak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.